

**Gasteizen, 2012/02/12**

**Fundación Rodríguez taldeak kultur jarduerak behin-betiko amaituko ditu.**

Ekintza (ekintza-adierazpen) honen bidez, 18 urtez lanean aritu ondoren bere proiektu artistiko eta kulturala amaitu egingo dela jakinarazi nahi du Fundación Rodríguez taldeak jendaurrean

### **“Goienetik”**

Goienetik Fundación Rodríguezek ekintza bat da, AGEZMerako ekintza batzuk proiektuaren barruan kokatzen dena, Egonaldiak, ARTIUM Bildumaren inguruko lehengoratzeko jarduerak (ARTIUM 2011-2012) erakusketaren inguruan.

1.

Fundación Rodríguezek taldean lan egin du 1994. Urtean hasita; hasiera batean eta 1998 bitartean SEAC taldearen parte zela eta geroago era guztietako lankidetzatarako zabalik zegoen talde gisa. Gure ibilbide osoan proiektuak antolatu eta koordinatu ditugu, kultura garaikidearekin eta bitarteko berriekin lotutakoak batik bat, gure jarduerak gure jardun artistikoaren luzapen gisa ikusiz. Talde proiektua, testuinguru sozio-kulturala eta sortzeko askatasuna elkarrekin egokitzea bilatu dugu beti, artearen egungo egoerari buruz gogoeta dagien ekoizpen teorikoa abiapuntu hartuz, egitate artistiko garaikidea ekoitzi, zabaldu eta banatzeko formula berriak mamitzeko asmoz. Denboraren poderioz, gure lana hainbat kontzepturen gainean oinarritu da: formatuen suntsipena eta ezagutza librearen zabalkundea, kultur politiketan benetako eragina izango zuten prozesu horizontalekiko eta talde lanarekiko konpromisoa, Arabako Amarike Asamblada, esate baterako, eta abar.

Urte hauetan aktiboki parte hartu dugu gure inguruko jarduerari artistikoetan, baina nazioarteko topaketa eta jardueretan ere parte hartu dugu, esate baterako:

ISEA 2002 (Nagoya, Japonia), ISEA 2004 (Stockholm, Tallin, Helsinki), Shanghai Duolun Museum of Modern Art (Shanghai, Txina), International Festival of Computer Arts (Maribor, Eslovenia), Transitio\_MX (Mexiko), No Space is Innocent, (Graz, Austria), CaixaForum-Barcelona, E.A.C.C. (Castelló), eta abar.

Duela gutxi, Madrilgo Sofia Erreginaren Museoan Era video proiektua aurkeztu dugu, espainiar estatuan azken 30 urteetan bidez egindako sorkuntza artistikoari buruzko jardunaldiak. En torno al vídeo (UPV/EHU, Bilbo, 2011), eta En torno a «En torno al vídeo» (Montehermoso Kulturunea, Vitoria-Gasteizko Udala, 2011).

Ezin ditugu ahaztu Fundación Rodríguezek sustatutako beste proiektu eta argitalpen batzuk ere, esate baterako: Estructuras – redes – colectivos (QUAM 2007), Panel de Control; Interruptores críticos para una sociedad vigilada (Centro de Arte de Sevilla. 2007), Tester-Trabajo de nodos / Nodes at wok / Adabegiak lanean DVDA eta liburua (Donostia, 2004) eta Arte y Electricidad CD-Rom bikoitza (Donostia 2002), azken biak Artelekuk argitaratuak

2.

Azkeneko aldiz parte hartuko dugu Fundación Rodríguez izenean, eta Egonaldiak... erakusketan izango da, proiektu horrek erabaki hau hartzeko esparru egokiena eskaintzen digulako.

Denbora honetan guztian taldean pentsatzen, jarduten, egiten eta zabaltzen ahalegindu gara, gure jendearekin lan egiten eta haien lanaren oihartzuna iritsi garen toki guztietaraino eramaten; une bakoitzean jardun artistikoaren muga gisa ikusten genuenaz harago begiratzen saiatu gara, aurreiritzien gainetik igaroz eta putzuz putzu jauzi eginez ahalik eta gehien ziprizzintzeko.

Gure ustez etapa bat ixteko garaia iritsi da. Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoaren puntu garaieraino iritsi gara: haren teilatu-laura ;-), eta «bilduma», «ondare» eta «museo-erakunde» ideia berrikusteko xedea duen topaketa batera gonbidaturik etorri gara. Hau da, toki egokira eta une egokian iritsi gara.

Horrela bada, inguruabar sinboliko hauek baliatu nahi ditugu gure adiskide guztiei eta urte hauetan zehar beren babesa eman diguten guztiei gure abenturan izan duten konfiantza eskertu nahi diegu. Elkarrekin igarotako denbora guztia, saiatutako guztia, ikasitako guztia eskertu nahi diegu. Pertsona, talde, lan talde, elkarte, ekimen, erakunde eta enpresen zerrenda luzea da, oso talde zabala da, aldi berean gure adiskide, esperientziakide eta lankide izan baitira.

3.

Uste dugu kulturaren makineriaren barne egituretan premiazkoa dela aldaketa bat gertatzea. Uste dugu artearen eta politikaren, artearen eta kulturaren, politikaren eta kulturaren arteko harremanetan etapa berri gisa susmatzen dugunak gure taldetik edota gutako bakoitzarengandik espero daitekeena baino askoz urrutirago iritsiko den konpromiso berri bat behar duela.

Horregatik erabaki dugu gure lana behin-behineko eta iraupen gutxiko ekintzetan, ez nahitaez artistikotzat joko direnetan barreiatzea. Uste dugu gure proiektua, gure zigilua eta orain arte izan dugun itxura aldatu egin behar direla. Horregatik aurkeztu dugu buruhandi zuri multzo hau, gure ustez anonimotasunaren indarra irudikatzen baitu.

Buru zuriz osatutako jendetza baten parte izan nahi dugu, egilerik gabeko keinuak eta ekintzak sortzeko gai izango direnak, elkarren kide izan beharrik gabe, baina elkarrekin egonez; gure keinoa Cachán, Celedón, Pintor de Vitoria, Ojobiriqui eta Escachapobres buruhandi historikoek irudikatzen duten gure lurraldeko kultur ondare herrikoia boterearekin lotuz.

Azkenik, sailka ezin daitekeen, identifika ezin daitekeen baina efigie zuri makrozefalo horien bidez –zeinetan bizirik iraungo baitu nola edo hala gure ekimenak– herritarren kezkekin loturiko zerbaiten parte izan nahi dugu.

Eta orobat uste dugu prentsa ohar honek ez duela ez panfleto bat eta ez aitorpen bat izan behar, beraz, agur esango dugu azkar-azkar, autokritika malenkoniaz kutsa dadin astirik eman gabe, beti egin izan dugun bezala, puxikarekin ezker-eskuin makila ukaldika...

Osasuna eta zorte on!

fundacionrdz.com